



Esp. zk: SUBV_EVAL_INDIV/2023/6

0 eta 12 urte bitarteko haurrak, edo 16 urte bitartekoak, desgaitasunik izanez gero, haien kargura dituzten familiendako diru-prestazioak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdia, bizitza pertsonala, lana eta familia bateragarri egite aldera. 2023. urtea.

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) letran zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri. ([2006ko 21. NAOn, otsailaren 17koan, argitaratua](#)).

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emaila:	Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Ekintzako eta Kiroleko zinegotzi ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Gizarte Zerbitzuak
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Dirulaguntzak emateko prozedura arautzea gizarte zerbitzuen arloan, 2023. urtean, 0 eta 12 urte bitarteko haurrak, edo 16 urte bitartekoak, desgaitasunik izanez gero –% 33koa edo handiagoa–, haien kargura dituzten familia-nukleoei diru-prestazioak emateko, familia-, gizarte- eta lan-ardurak bateragarri egite aldera, betiere deialdi honen B.3) eta D) apartatueta ezarritako baldintzak eta betekizunak betetzen badituzte.

Deialdi honen ondorioetarako dirulaguntzaren familia onuraduntzat joko dira elkarbizitza-nukleo bat direnak (aurreko paragrafoan adierazitako adin txikikoak kargura dituzten ama/aita edo tutoreak, eta adin txikiko horien anaia-arrebak, baldin eta diru-sarrerak badituzte).

Deialdi honen xedea da familiei dirulaguntzak ematea, aita, ama edo legezko tutoreen lan-, gizarte- eta familia-bizitza bateragarri egite aldera. Horretarako, diruz lagunduko dira honako egoera hauetakoren batean dauden familiak:

1.1. 1.1. Aita, ama eta/edo legezko tutoreen lan-, gizarte- eta familia-bizitza bateragarri egiten laguntzea, honako egoera hauetakoren bat gertatzen bada:

- aukerarik ez edukitzea haurren arretaz arduratzeko, haien arduradunen lan-jardunak eragindako egoerak direla-eta.

- aukerarik ez edukitzea haurren arretaz arduratzeko, gizarte- eta lan-prestakuntzako edo -sustapeneko jarduerak direla-eta, baldin eta horien helburu nagusia bada aita, ama edo/eta tutoreen enplegarritasun-maila hobetzea, lanpostu bat lortze aldera edo Udalaren gizarte-zerbitzu batekin aldez aurretik adostutako gizarteratzera bideratzeko diseinatu den ibilbide batean aurrera egiteko, haren helburua izanik familien gizarteratzea hobetzea.



1.2. Aita, ama, eta/edo legezko tutoreen familia-bizitza eta bizitza pertsonala bateragarri egitea, betiere inguruabar hauetako bat emanez gero:

- pertsona berbera izatea menpekotasuna duten pertsona heldu edo adinekoak eta adin txikikoak zaintzen dituen (eta aukerarik ez izatea ardura horiek autonomia pertsonal nahikoa duen familiako beste heldu batekin partekatzeke).
- prebentzio- eta babes-baliabide gisa baloratzea arrisku- edo babesgabetasun-egoeran egoten ahal diren haurrendako (egoera horiek Udaleko gizarte-zerbitzuek emandako txostenen bidez zein egoeraren berri duten ikastetxe, osasun-etxe edo bestelako gizarte-zerbitzuek emandakoez dokumentatu beharko dira).

2. Deialdiaren helburua:

Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Garapeneko eta Kiroleko Alorrak badu interesa 0 eta 12 urte bitarteko haurrak, edo desgaitasunik izanez gero –% 33koa edo handiagoa– 16 urte bitartekoak, kargura dituzten familien beharrak –lan- eta familia-bizitza nahiz gizartekoa bateragarri egiteari dagokionez, aurreko zenbakian deskribatutako egoeraren batean baldin badaude– asetzea xede harturik neurri egokiak hartzeko, eta interes horrek hartaraturik sortu ditu laguntza hauek.

Aipatutako egoeretan dauden baloratzeko zenbait faktoreri begiratuko zaio: Haur Eskola publikoen sarean leku nahikorik ez egotea; haurrei arreta etxean emateko aukera; laguntza-beharra haurrek ikastetxera egin beharreko joan-etorrietan, edo haurrei arreta emateko bestelako zerbitzuak erabiltzeko beharra, haurren eskola-ordutegiak eta haien arduradunen lan-ordutegi edo gizarte arloko prestakuntza-jardueren ordutegiak ez direlako bateragarri (hemen oporraldiak ere barne hartzen dira).

3. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak eta epeak:

Deialdi honen ondorioetarako, jarraian deskribatzen diren egoerek eragindako gastuak dira dirulaguntzen xedea, hartzailleen adinek zedarrizten dituzten honako modalitate hauetan:

1. LAGUNTZAK, 0 eta 3 URTE BITARTEKO HAURRAK ARTATZEKO:

A.- Dirulaguntzak haurtzaindegia ordaintzeko: xedea da 2023. urtean haurtzaindegi pribatuaren matrikula eta eguneko egonaldien kostuak ordaintzen laguntzea, betiere egonaldi horiek halako ordutegietan izaki ezen posible egingen baitute familiako, gizarteko eta laneko bizitzak bateragarri egitea. Dirulaguntza hauek Haur Eskola Publikoetako leku-esleipenarekiko osagarriak dira.

B.- Haurrak etxean artatzea: Haur Eskolek edo haurtzaindegiek ezin badiote erantzunik eman azaldutako beharrari, haurrak artatzeko laguntzak eman daitezke haur horiek 16 aste dituztenetik Haur Hezkuntzako zikloan 3 urterekin eskolatu arte. Etxeko arta emanen da baldin eta gurasoek edo tutoreek ezin badute egin, lanaldiaren ordutegiekin edo prestakuntza jasotzeko ordutegiarekin bateraezina dutelako, eta horrek justifikatzen badu arta ezin ematea.

Zerbitzua enpresa espezializatu batek ematen ahalko du, edo familiak kontratatutako haur-zaintzaile batek; eta Udalak haurraren interesaren arabera teknikoki egokiena den baliabidea aukeratuko du, Udaleko Gizarte Zerbitzuen proposamen teknikoarekin bat. Halaber, ezohiko kasuetan baloratuko da, baita ere, etxean arta emateko laguntza bateragarria den haurtzaindegian artatzeko dirulaguntzarekin.

2. LAGUNTZAK, 3 ETA 12 URTE BITARTEKO ADINGABEAK, EDO DESGAITASUNIK IZANEZ GERO 16 URTERA BITARTEKOAK, ARTATZEKO:

A.- Adingabeak etxean artatzea, honako egoera hauetakoren batean:

- Adingabea goizeko ikasgelara (halakorik bada) edo ikastetxera sartu bitartean, eskola-aldian, eta/edo dagokion bateratze-zerbitzura sartu bitartean, oporraldietan. Hala emanen da adingabeen arduradunek goizeko lanaldia dutenean eta, beraz, goizeko lehen orduetan etxean ez daudenean, eta laguntza jasotzeko sare naturalik ez badute. Laguntza emanen da adingabeen arduradun horiek etxetik atera behar dutenetik goizeko ikasgelak, eskolak zein bateratze-zerbitzua hasi bitarte.

- Adingabea goizeko ikasgelatik (halakorik izanez gero), eskolatik edo dagokion bateratze-zerbitzutik –



oporraldietan– ateratzen denetik adingabeen arduradunak etxera iritsi bitartean. Hala emanen da arratsaldeko lanaldia dutenen kasuan, astelehenetik ostiralera, eta laguntza jasotzeko sare naturalik ez badute.

- Asteburu eta jaiegunetan, adingabeen arduradunek lan egiten badute eta, beraz, etxean ez badaude, eta laguntza jasotzeko sare naturalik ez badute.

B.- Goizeko edo arratsaldeko artarako komunitate-zerbitzuak ordaintzeko dirulaguntzak:

Helburua dute 2023. urtean laguntza ekonomikoa ematea familia, lana eta gizarte-ardurak bateratzeko baliabideren bat ordaintzen laguntzeko, ikastetxeek eskaintzen dituzten ordutegiak eta haurren gurasoen edo arduradunen lan ordutegiak bateraezinak diren kasuetan.

Goizeko ikasgelen baliabidea astelehenetik ostiralera ezartzen da, ikastetxean sartu bitarteko ordutegian. Arratsaldeko ikasgelen edo horretarako antolatutako zerbitzuen kasuan, astelehenetik ostiralera bitarteko aldietarako ezartzen dira dirulaguntzak, eta beranduenez 21:00ak arteko zerbitzua lagun daiteke diruz.

Adingabea egunean 8 orduz baino gehiago familiarekin egon gabe egon ez dadin, ezin izanen dira, inolaz ere, jarraian erabili goizeko eta arratsaldeko arta-zerbitzuak.

Baliabide hori erabiltzeko, ezinbesteko baldintza izanen da eskatzaileak laguntza jasotzeko sare naturalik ez edukitzea eta agiriz egiaztatzea bere lanaldiak eragindako bateraezintasuna.

Salbuespen gisa, eta beste zerbitzurik erabiltzeko aukerarik ez badago, dirulaguntza etxeko artarako ematea aurreikusiko da, zerbitzu hauek ordaintzeko dirulaguntzen osagarri.

3. LAGUNTZAK EMATEKO IRIZPIDEAK: Dirulaguntzak honako irizpide hauekin bat emanen dira adierazitako edozein modalitatetarako:

a) Dirulaguntza jasotzeko aldiak irauten duen bitartean, Udaleko gizarte-zerbitzuek emandako dirulaguntzaren kopurua berraztertuko dute, baldin eta dirulaguntza emateko aintzat hartu zen premia-egoeran funtsezko aldaketarik gertatu bada (beharra oraindik ere dagoen edo ez, gizarte-zerbitzuen eta familien artean ezarritako hitzarmenak bete diren edo ez, etab.).

Premia-egoera berriari dagokion zenbatekoa C.3 apartatuan ezarritakoarekin bat zehaztuko da.

Familia eskatzaileak nahitaez joan beharko du Udalaren gizarte-zerbitzuek horretarako ezartzen dituzten hitzorduetara; halaber, gizarte-zerbitzuek familiaren esku jarri beharko dituzte egoera eguneratzeko eskatutako elkarrizketa oro. Kasu horretan, Udalaren kasuan kasuko gizarte-zerbitzuak berrikuspen-txostena (V. eranskina) igorriko dio Gizarte Zerbitzuetako Alorrari, balorazioa egin dezan.

Laguntza eman bada enplegua era aktiboan bilatzeko, aldi bakar batean jasoko da, gehienez ere 6 hilabetez. Ez da berritserik onartuko. Horren salbuespen izanen dira deialdi honetako B) 1.1.2 apartatuan jasotako baldintzak betetzen dituzten egoerak.

b) Babesgabetasun egoeretan, kasuaz arduratzen den profesionalak aurrez eskatzailearekin adostuta ezarri dituen helburuak noiz lortu eta horren arabera doituko da dirulaguntza jasotzeko epea, eta dirulaguntza ematen jarraitzeko, profesional horrek beharrezko jotzen dituen berrikuspen eta jarraipenak egiten ditu, helburuen betetze-maila eta deialdi honen bidez laguntzen den zerbitzua mantentzeko egokitasuna baloratze aldera.

c) Baliabidearen helburua enplegua era aktiboan bilatzea bada, laguntza gehienez ere zeregin horretan egunean 4 orduz aritzeko emanen da. Aldi bakar batean emanen da, gehienez ere 6 hilabetez. Ez da berritzea baimenduko.

Enplegua era aktiboan bilatzen, noizbehinkako lanetan edo 4 ordu baino gutxiagoko lanaldian ari direnek prestazioa jasotzeko eskubidea izanen dute bakarrik adingabeen arta ordaintzeko "Dirulaguntzak haurtzaindegia ordaintzeko" modalitatean.

d) Gizarteratzea eta laneratzea bideratutako prestakuntza-beharrak asetzea xede duten dirulaguntzak eskatzailea egiten ari den ikastaroaren edo prestakuntza- edo okupazio-jardueraren ordutegiaren arabera izanen dira, eta aukera izanen da ordutegi hori ordu erdiz luzatzeko bai ikastaroaren aurretik bai ondoren.

e) Familia eta lana bateragarri egitera zuzendutako dirulaguntzez bezainbatean, emandako zerbitzuen ordutegia (haurtzaindegia, etxeko arreta...) lanaren ordutegira egokituko da.



BANAKAKO EBALUAZIOA

- f) Oro har, haurrak ez dira zortzi ordu baino gehiagoz egonen haur-eskolan.
- g) Dirulaguntza hauek jaso ahal izateko, 12 eta 16 urte bitarteko adingabeak dituzten familiek adingabeek % 33ko desgaitasuna edo handiagoa dutela egiaztatu beharko dute.
- h) Adingabea etxean artatu behar den kasuetan, 07:00etatik 22:30era egiten ahalko da, astelehenetik igandera. Salbuespen gisa, eta beste aukerarik ez badago, behar bezala justifikaturiko salbuespenak hartuko dira kontuan. Edonola ere, eta arau orokor gisa, adingabeen arduradunen lan-ordutegian bakarrik onartuko dira salbuespen horiek.
- i) Deialdi honetan zehaztutako dirulaguntzak jasotzeko ez da bakarrik baremo ekonomikoa kontuan hartuko; hortaz, salbuespenak ezartzen ahalko dira prebentzio, egokiera, premia edo antzeko irizpideak kontuan hartuta. Salbuespen horiek deialdi honen xede eta baldintzekin bat etorri beharko dute, eta familiaren egoera deskribatu eta justifikatuko duen txosten tekniko batean jasoko dira, eskatutako baliabidearen egokitasuna, eskatzailearekin eta haren familiarekin garatzen ari den esku-hartze plana oinarri hartuta.
- j) Dirulaguntza ukatuko da, baldin eta eskatzaileek ez badituzte betetzen deialdi honen B) apartatuko 1. eta 2. zenbakietan eta D.1) apartatuan jasotako betekizunak, eskatutako agiriak aurkezten ez badira eta B.4) apartatuan jasotako balorazio-irizpide eta moduetara egokitzen ez badira.
- k) Deialdi honen baldintzak betetzen dituzten familiei emanen zaizkien dirulaguntzek atzeraeraginezko ondorioa izanen dute, 2023ko urtarrilaren 1etik, deialdia onetsi ondoren eta NAO-n argitaratu eta hurrengo hamabost eguneko epean aurkezten diren eskabideen kasuan. Gainerako kasuetan, dirulaguntza jasotzeko eskubidea agiri guztiak aurkezten diren egunetik aurrera aitortuko da.

Deialdi hau 2023. urte osoan egonen da indarrean.

4. Baloratzeko betekizunak, bideak eta lehentasunak:

☒ BAI ☐ EZ

Dirulaguntzak emanen dira deialdi honetan onuradun izateko ezarritako betekizunak betetzen dituzten eskaerak aurkeztu ahala, eta, betiere, eskaerari erantzuteko aurrekontu-kontsignazioa egon bitartean. Dirulaguntzen eskaerak baloratzeko honako hauek hartuko dira kontuan:

- 1.- Babesgabetasun-egoeran diren adingabeak.
- 2.- Haurraren gurasoak, legezko tutoreak edo arduradunak lanean hastea.
Ezin izanen dute laguntzarik jaso bi gurasoak langabezian dituzten familiek, salbu eta haietako bat adingabeaz modu egokian arduratzea ekiditen dion egoeraren batean badago; egoera hori agirien bidez justifikatu beharko da.
- 3.- Haurraren gurasoak, legezko tutoreak edo arduradunak lana lortzeko prestakuntza-programetan edo gizarteratze-ibilbideetan aritzea.
- 4.- Eskaera bat etortzea deialdi honen B.3 apartatuan dirulaguntzaren xede gisara adierazitako kontzeptuekin.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdian gehienez ezarritako zenbateko osoa: 25.000 €

Apartatu honen amaieran adierazitakoa ezertan galarazi gabe, aurrekontu-kontsignazioa 2023an agortzen bada eta Gizarte Zerbitzueta Alorrean urte horretarako aurreikusitako beste jardueretako batzuk ez badira gauzatu, jarduera horietarako aurreikusitako zenbatekoak deialdi honetan erabiltzen ahalko dira, baina horrek ez du berez ekarriko beste deialdi bat egitea. Kredituaren gehikuntza horren onuradun izaten ahalko dira eskaera deialdi honekin bat eta eskabideak aurkezteko epean egin duten eskatzaileak, baldin eta laguntzarik jaso gabe gelditu badira kreditua agortzearen ondorioz.

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.



BANAKAKO EBALUAZIOA

2. Aurrekontu-partida: 70/23181/480000

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Jasoko den dirulaguntzaren zenbatekoa adierazitako tarte bakoitzari dagokion ehunekoak ezarriko du. Ondorengo tarteren batean sartzeko, familia-nukleoaren urteko diru-sarrerak eta kide kopurua hartuko dira kontuan, Q apartatuan ezarritakoarekin bat. Diruz lagundutako ehunekoak zerbitzuaren kostuaren gainean eta/edo diruz laguntzen ahal den gehieneko zenbatekoaren gainean ezarriko da.

Hona hemen dirulaguntzetarako tarteak:

1. tarte: % 90eko dirulaguntza; 2. tarte: % 70eko dirulaguntza; 3. tarte: % 40ko dirulaguntza; 4. tarte: % 25eko dirulaguntza

FAMILIA-NUKLEOAREN GEHIENOKO DIRU-SARRERAK

Kide kopurua	1. tarte	2. tarte	3. tarte	4. tarte
2	11.605	12.810	14.076	15.520
3	13.754	15.141	16.684	18.396
4	15.043	16.560	18.248	20.120
5	16.332	17.980	19.813	21.846
6 edo gehiago	17.192	18.926	20.855	22.996

4. tartetik gorako diru-sarrerak dituzten familia-nukleoek (dagokien kide kopuruarekin bat) ez dute dirulaguntzarik jasotzeko eskubiderik izanen.

Deialdi honetan haurtzaindegia ordaintzen laguntzeko jasotako kasu guztietarako zehaztuko da dirulaguntza, ezarritako baremoaren arabera kasuan-kasuan dagokion ehunekoak aplikatuz, hileko 300 euroko gehieneko zenbatekoari. Deialdi honetan jasotako etxez etxeko laguntza-kasu guztietarako ezartzen da dirulaguntza familia-nukleoari dagokion portzentajea aplikatuz kalkulatu dela, goian ezarritako baremoaren arabera eta 400 euro hileko gehieneko zenbatekoaren gainean.

4. Urte anitzeko deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

5. Urtekoak:

Urteko arrunta:	25.000 €	2. urtekoa:	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa ()	€	3. Urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izan daitezke onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☒ EZ

1.- Iruñeko egiazko auzokidea izatea eta bertan erroldatuta egotea (eskatzaileak zein onuradunak), gutxienez 6 hilabeteko antzinatasunaz eta dirulaguntza jasotzen den bitartean. Antzinatasunaren betekizunetik salbuetsita izanen dira deialdi honetan B.4) apartatuaren 1. irizpidean jasotako kasuak (arrisku- edo babesgabetasun-egoera) eta familia berrelkartzeen kasuetan dauden adingabeen kasuak (kasu horietan ez da kontuan hartuko erroldatutako gutxieneko eperik).

2.- Familia-nukleo baten kide kopurua zehazteko, kontuan hartuko da zenbat kide dituen familia-unitateak eskaera egiten duen unean.

Aurrekoa gorabehera, beste kide bat gehiago konputatuko da honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean: guraso bakarreko familiak, familia ugariak eta desgaitasuna duen kideren bat dutenak. Egoera horiek metagarriak izaten ahal dira familia-nukleoaren kide kopurua zehazterakoan, baldin eta behar bezala egiaztatzen badira.

Zaintza partekatuko kasuak ez dira joko guraso bakarreko familiatzat aurreko paragrafoan



BANAKAKO EBALUAZIOA

xedatutakoaren ondorioetarako. Kasu horietan, gurasoetako bakoitzaren egoera ekonomikoa baloratuko da dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa ezartzeko, C.3 apartatuan ezarritakoarekin bat.

3.- 12 urte bitarteko haurren guraso edo legezko tutore izatea, edo 16 urte bitartekoena, haurrek % 33ko desgaitasuna edo handiagoa badute.

4.- Deialdi honetan ezarritakoak baino bitarteko ekonomiko altuagoak ez izatea, ezta egoerari aurre egiteko familia-laguntzarik ere.

5.- Eskaera ukatuko zaie familiei familia-ondarearen kapital higigarriak (kontu korronteko gordailuak edo eperakoak, akzioak, inbertsio- eta pentsio-funtsak, balore higigarriak, bizitza-aseguruak erreskate kasuan...) 7.000 euro baino gehiago eta kapital higiezinak (landakoak zein hirikoak diren ondasun higiezinak) 20.000 euro baino gehiago jotzen duenean. Higiezin horiek katastro-balioaren arabera baloratuko dira. Hortik kanpo gelditzen dira ohiko etxebizitza eta horri atxikitakoak, bertako altzariak, etxeko hornidurak eta ohiko joan-etorrietarako ibilgailua; horrek guztiak batuta gehienez ere 300.000 euro joko du.

6.- Udalaren gizarte-zerbitzuek eskatutako agiriak aurkeztea.

7.- B.3.1.A apartatuan jasotako dirulaguntzaren familia onuradunek ikaspostu-eskaera egin beharko dute Haur Eskola Publiko batean horretarako urtero ezarritako epean. Sare publikoan lekurik ez eskatzeak edo hari uko egiteak berekin ekarriko du laguntza hauek jasotzeari uztea edo eskaerari ezetza ematea.

Dirulaguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen:

☒ BAI ☒ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskaerarekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

a) Erreferentziako langile teknikariekin adostutako helburua betetzea eta jarduerak edo egitekoak gauzatzea, dirulaguntza honen eskaeraren oinarri den egoera zuzentzeko helburuz.

b) Organo emailearen aurrean justifikatzea baldintzak eta betekizunak bete direla, bai eta jarduera egin dela eta dirulaguntza zertarako den eta helburu hori bete dela ere, Iruñeko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Alorreko erreferentziako Auzo Unitatearen, Programaren edo Zerbitzuaren aurrean.

c) Men egitea dagokion erreferentzia-zerbitzuak egin beharreko egiaztapen-jarduketei, bai eta kontrol-organo eskudunek finantzaketa egiaztatzeko zein kontrolatzeko egiten ahal dituzten beste guztiei ere, betiere jarduketa horien ondorioz eskatzen dizkieten argibideak oro eman beharko dituztelarik, halakoak udal-agiritegietan jasota egon ezean.

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik lortuz gero, horren berri ematea organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

e) Jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak –agiri elektronikoak barne– gordetzea, egiaztapen eta kontrol jarduketan xedea izan daitezkeen neurrian.

f) Familiek auzo-unitateei edo arreta ematen duten Gizarte Zerbitzuetako Alorraren programaren arduradunei jakinarazi behar dizkiete beren egoera sozioekonomikoan izan diren aldaketak oro, jasotzen duten dirulaguntzaren zenbatekoa eta, hala badagokio, jasotzeko epea aldatzeko.



BANAKAKO EBALUAZIOA

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea eta hedapena eman beharko dizkiote dirulaguntzaren xede diren jarduera edo proiektuen udal-finantzaketaren izaera publikoari. Horretarako:

- Komunikazio edo publizitate idatzi zein grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan) Udalaren logotipoa txertatu beharko da, eta honako legenda hau: "Laguntzailea: Iruñeko Udala". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitatean lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman eta horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikuluekin bat: ☐ BAI ☐ EZ
Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☐ BAI ☒ EZ

G. ESKAERAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskaerak non aurkeztu:

Eskaerak honako toki hauetan aurkezten ahalko dira: Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean (Kondestablearen jauregia - Kale Nagusia 2, behe), erregistro osagarrietan edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozeinetan.

2. Eskaerak aurkezteko epea: Eskaerak aurkezteko epea deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean noiz argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta deialdiaren indarraldi osoa hartuko du. Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskaerak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak interesdunak edo zuzenbidean baliodun den edozein bide baliatuta ordezkari dela egiaztatzen duen pertsona batek sinaturik aurkeztutako eskabide bidez egin behar dira, deialdi honen I. eranskinetako ereduarekin bat. Eskaerarekin batera, deialdi honen G.4) apartatuak aipatzen dituen agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Eskaera batek ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldez aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

Baldin eta galdatutako agiriak Iruñeko Udalaren edo haren mendeko erakunde autonomoen eskuetan



badaude, haien ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal da indarrean direla egiaztatzeko, bertan adieraziz noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren edo, hala badagokio, nork eman zituen edo non dauden jasota; hori guztia, betiere, ez badira bete bost urte baino gehiago agiri dagokien prozedura amaitu zenetik.

Dirulaguntza jasotzeko eskaera aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak.

- Haurraren guraso edo legezko tutorearen NANA edo AIZA.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honen II. eranskina eredu hartuta, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko, honako agiri hauek:

☐ Administrazio eskudunek emandako ziurtagiriak.

☐ Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, ziurtatzeko aipatu betebeharrak eguneratuak dituela. Kasu horretan, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik, interesdunari eskatu beharko zaio aurkez ditzala, 15 eguneko gehieneko epean, adierazpenean jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzen duten agiriak (administrazio eskudunek emanak).

Udalak ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela berarekiko tributu-betebeharrak, eta egiaztapen hori dagokion eginbidearen bitartez adieraziko du.

Dirulaguntza honen izaera eta xedea kontuan harturik, ez zaie eskatuko eskatzaileei c) letra honetan adierazitako agiriak aurkezteko.

d) Eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen elkarteren bat bada –horiek publikoak zein pribatuak izaki–, eskaeran berariaz adierazi beharko da elkarteko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkarteraren ordezkari edo ahalguztari bakarria izendatu behar da, eta ahalorde askiatsia eman behar zaio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non jakitera emanen baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribatu helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. (Ikusi, behar izanez gero, deialdi honen III. eranskina). ☐ BAI ☒ EZ

f) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

g) Elkarbizitza-unitateko kideen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitortzea, datu fiskalen orria barne. Aitortzen hori egiteko betebeharra ez badute, betebeharrak ez dutela adierazten duen egiaztapena aurkeztu beharko dute –Foru Ogasunak emana–, datu fiskalak txertatuta.

h) Familiaren diru-sarreraren frogagiriak (azken nominak, langabezia-prestazioak, pentsioak eta diru-sarreraren gaineko erantzukizunpeko adierazpena, bai eta familia eskatzailearen ahalmen ekonomikoa egiaztatzen lagungarri izan daitezkeen intereseko agiri guztiak).



BANAKAKO EBALUAZIOA

i) Desgaitasun-mailaren egiaztagiria, 12 eta 16 urte bitarteko adingabeen kasuan.

j) Banantze/dibortzio kasuetan edo izatezko bikotea desegin bada, sententziaren eta seme-alaba bakoitzeko hartu beharreko neurriak arautzen dituen hitzarmenaren kopia aurkeztu beharko dira, edo, hala badagokio, hori tramitatzeke jarduketak abiarazi izanaren egiaztagiria.

Mantenu-pentsioa ez bada ordaintzen ari, epaitegian epaia betearazteko aurkeztutako eskaeraren kopia edo jarduketak abiarazi izanaren egiaztagiria.

k) Teknikari arduradunek kasuaren espezifikotasunarekin bat egoki jo eta eskatu dizkieten bestelako agiriak.

Dirulaguntza jasotzeko eskaera aurkezteak berekin dakar Iruñeko Udalak baimena duela ofizioz egiaztatzeke familia eskatzailea Iruñean erroldaturik dagoela.

Agiriek jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo, bestela, indarreko legeekin bat kautoak diren kopiak.

H. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:

1. Prozeduraren instrukzioa: Espedienteak jaso ahala tramitatu eta ebatziko dira, horretarako aurrekontu-krediturik dagoen bitartean, betiere deialdi honen B.4) apartatuan zehaztutako betekizunen, moduen eta balorazio-lehentasunen arabera. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedienteak kontuan harturik, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

Halaber, ebazpen-proposamena emanen da Udal Prestazio honen teknikari arduradunak emandako txostena ikusita.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: Ebatzi eta ebazpena jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da gehienez ere.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta pertsona edo entitate eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☐ BAI ☐ EZ
- Tramitatzeke eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: ☒ BAI ☒ EZ
- ☐ Epea kontatzeko beste sistema bat:

Behin prozedura ebazteko gehieneko epea berariazko ebazpenik eman gabe igarota, eskaera ezetsizat joko da.

I. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:



BANAKAKO EBALUAZIOA

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☐ BAI ☐ EZ

Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 18.1. b) artikuluan ezarritakoarekin bat, ez da argitaratu behar dirulaguntzak emateko ebazpena.

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

J. DIRULAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:

1. Dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira dirulaguntzen xede den jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen J.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek diruz laguntzen ahalko dira:

"Dirulaguntzak haurtzaindegia ordaintzeko" modalitatean, "0-3 urteko adingabeak artatzeko", diruz laguntzeko moduko joko dira matrikularen ordainketa eta haurtzaindegien eguneko egonaldiaren kostua. Dirulaguntzaren xede diren gastuetan, kostua ezin izanen da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat joko dira deialdi honen J.2) apartatuan ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutakoak: ☐ BAI ☒ EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere dirulaguntzen xede izanen:

2. Dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastuak egiteko epea: *Deialdi honen B.3) puntuan adierazitakoa.*

K. AZPIKONTRATAZIOA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☐ BAI ☒ EZ

Ehunekoa:

L. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, apartatu honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra:

☒ BAI ☐ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoa: Familia onuradunek, kasu guztietan, ordaindu beharko dute diruz lagundutako jardueraren kostuaren eta dirulaguntzaren zenbatekoaren arteko aldea. Dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko C.3 apartatuan adierazitako ehunekoa aplikatuko da, familia-unitatearen diru-sarreraren eta kide kopuruaren arabera tartearekin bat.

M. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA EDO BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.



BANAKAKO EBALUAZIOA

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, dirulaguntza horien xede den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

N. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

☒ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa. Dirulaguntzaren ordainketa egingen da behin haur-eskolak edo onuradunak haurra eskolara joan izana edo etxean artatu izana justifikatu eta gero.

Laguntzak honako prozedura honekin bat ordainduko dira:

- Kasuan kasuko haurtzaindegia faktura bat aurkeztuko dio Iruñeko Udalari hilabete horretan artatutako haurr(ar)en izenean. Behin prestazio honen teknikari arduradunak oniritzia eman eta gero, haurtzaindegiari ordainduko zaio familiari emandako laguntza.
- Arta etxean ematen den kasuetan, joan-etorrietarako laguntzetan eta goiz zein arratsaldeko ikasgelen kasuan ordaindu beharreko dirulaguntzak familiei zuzenean ordainduko zaizkie horiek aldeztu aurretik dagokien faktura xehatua aurkeztuta (indarrean den legearekin bat jaulkita), edo, etxeko lanetako zerbitzurako kontratatutako pertsona fisikoaren kasuan, langilearen lan-kontratua aurkeztu beharko da (kontratuan adierazi behar dira soldata eta lanaldiaren zein kontratuaren iraupena, eta langilea Gizarte Segurantzaren alta eman izanaren agiria eta ordaindutako azken nomina ere aurkeztu beharko dira).

Abenduaren kasuan, tramitazio administratiboa zuzen egiteko, ordainketa aldeztu aurretik egingen da. Edonola ere, 2024ko urtarrilaren 10a baino lehen, haurtzaindegia edo onuradunak epe horri dagozkion justifikazio-agiriak aurkeztu beharko ditu. Behin justifikazio-agiriak aztertuta, udal-prestazio honen teknikari arduradunak txostena egingen du abenduko ordainketaren zuzentasunari buruz, eta haurra haurtzaindegira ez bada joan edo etxean arta jaso ez badu aurreikusitako moduan dirulaguntzaren dagozkion partea itzuli beharko du onuradunak.

2022an aurkeztutako eskabideen ordainketa deialdi honen aurrekontu-partidaren kontura egingen da, aldeko balorazioa izanik eta kreditu erabilgarria egonik 2022ko hileko ordainketaren bati dagozkion dirulaguntza jaso ez badute.

Dirulaguntzarako eskaera aurkeztea baimen askietsia da Udalak haurtzaindegiari betebeharraren aitortpena jakinarazteko, halako moduz non behin Udalak eskaeren gainean ebatzi eta onuradunak zerbitzua jaso eta gero, haiei zuzenean ordainduko baitie familiei emandako dirulaguntza.



- ☐ Konturako ordainketa:
- ☐ Ordainketa zatikatua:
 - ☐ Ordainketa aurreratua:
 - ☐ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta aurreratuaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

Aurrekoa gorabehera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 33.4 artikuluan xedatutakoarekin bat, Iruñeko Udalak ofizioz kitatzen ahalko ditu dirulaguntzen onuradunekin kobratzeke dituen zorrak, emandako dirulaguntzaren edo horren parte baten bidez haiek berdinduta.

2. Bermeen eraketa:

☐ BAI ☐ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

Ñ. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Ezarritako baldintzak bete eta dirulaguntza ematerakoan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, modalitate hau erabiliko da:

- ☐ Justifikazio-kontua:
- ☐ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).
 - ☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta:
Bestelako edukirik: ☐ BAI ☐ EZ
 - ☐ Justifikazio-kontu erraztua:

☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitate-orrien aurkezpena:

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla, eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☒ Beste sistema bat:

- Hartzaindegiak edo haur-eskolak faktura bat aurkeztu beharko dio Iruñeko Udalari hilabete horretan artatutako haur(ar)en izenean.

- Etxean arta emateko edo goiz zein arratsaldeko ikasgelen kontzeptuengatik, justifikazioa egiteko dagokion faktura xehatua aurkeztu beharko da (indarrean den legearekin bat jaulkita), edo, etxeko lanetako zerbitzurako kontratatutako pertsona fisikoaren kasuan, langilearen lan-kontratua aurkeztu beharko da (kontratuan adierazi behar dira soldata eta lanaldiaren zein kontratuaren iraupena, eta Gizarte Segurantzaren alta eman izanaren agiria eta azken nomina ere aurkeztu beharko dira).



BANAKAKO EBALUAZIOA

Dokumentazio hau guztia becacomedor@pamplona.es posta helbide elektronikora aurkeztu ahal da.

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: Deialdiaren indarraldia amaitu baino lehen aurkeztu beharko da. Abenduaren kasuan, 2024ko urtarrilaren 10a baino lehen hartzaindegia edo onuradunak epe horri dagokion justifikazio-agiriak aurkeztu beharko ditu.

O. DIRUA ITZULARAZTEKO BERARIAZKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 45. artikuluan eta apartatu honetan aurreikusitako gainerako kasuetan ageri diren itzularazteko arrazoiak batek ukitzen badu onuraduna.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☐ BAI ☐ EZ

P. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta haiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka, errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

Q. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

FAMILIAREN ERRENTA ETA DAGOKION DIRULAGUNTZA KALKULATZEKO PROZEDURA

1. Familia Unitatearen baliabide ekonomikoak ezartzeko, baliabide ekonomikotzat hartuko dira familiaren hileroko diru-sarreraren batura eta ondarea, honako hauek kontuan harturik:

2. Diru-sarreraren balorazioa:

2.1. Lan-etekinen diru-sarrerak: hileroko lan-etekintzat hartuko dira norberaren zein besteren konturako lanetik etorritako diru-sarrera garbiak, eta bizikidetzako familia nuklearrean aitortutako prestazioak eta pentsioak –funts publiko zein pribatuen kontura finantzatu eta gizarte-aurreikuspeneko erregimenetan sartutakoak–, zati 12.

Zaintza partekatuen kasuetan, eskaera bakar bat aurkeztu beharko da, titular bakar baten izenean,



BANAKAKO EBALUAZIOA

ezertan galarazi gabe aurkeztu behar izatea hala deialdi honen G.4) apartatuak aipatzen dituen agiriak nola bi gurasoen diru-sarrerak, dirulaguntza osorik jaso ahal izateko. Guraso bakar baten diru-sarrerak aurkeztuz gero, dagokion kalkulua eginen da, kontuan hartuz zaintza partekatu bat dela.

Kontuan hartuko dira:

a) Besteren kontura arituta lan egonkorra edukiz gero: azken errenta-aitorpena hartuko da kontuan, eta diru-sarrerak 507. eta 529. epigrafeekin bat aintzat hartuko dira. Familia-unitateko kideek urte honetan jasotako pentsio, prestazio edota nominak direla-eta lortutako diru-sarrerak ere hartuko dira kontuan, halakorik izanez gero, baldin eta azken errenta-aitorpenean ez badira sartu.

b) Lan ezegonkoraren kasuan (diru-sarrera ez-aldizkakoak), azken sei hilabeteetako diru-sarrerak kontabilizatuko dira.

c) Norbere konturako lan egoeran –hala banako enpresaburuen nola sozietate zibil irregularretan edo merkataritzakoetan elkartutakoen kasuan–, baldin eta eskabidea aurkezten dutenean urtebete edo gehiagoko lan egonkortasuna badute, azken errenta-aitorpena hartuko da kontuan, eta aitorten horren 507. eta 529. epigrafeetan azaldutako kopuruak joko dira diru-sarreratzat. Familia-unitateko kideek urte honetan jasotako pentsio, prestazio edota nominak direla-eta lortutako diru-sarrerak ere hartuko dira kontuan, halakorik izanez gero, baldin eta azken errenta-aitorpenean ez badira sartu.

2.2. Ondare-etekinen diru-sarrerak: ondare-etekintzat hartuko dira ondare higiezin zein higigarrien kapitaletatik datozenak, salbu deialdiaren D.1) apartatuko oinarrietan aipatutakoak.

3. Atal honetako 2.1 puntuak aipatzen dituen baliabide ekonomikoen zenbaketan honako diru-sarrera hauek salbuetsiko dira:

- Mantenu-pentsiotik eratorriko diru-sareren lehen 250 euroak.
- Gizarte Segurantzaren prestazioak ardurapeko seme edo alabarengatik.
- Adingabeak familian hartzeak eragindako gastuak konpentsatzeko diru-prestazioak, Gizarte Politikako Departamentuak emanak.
- Xede jakineko dirulaguntzak, hau da, larrialdietako dirulaguntzak, etxebizitza erosteko zein gizarte-alokairukoak, bekak, eskola-garraiorako laguntzak eta familia-unitatearen behar bat estaltzeko emandako beste edozein.

4. Diru-sarreretatik etxebizitzaren gastuak (alokairua edo hipoteka) deskontatuko dira, honela:

Diru-sarreretatik etxebizitzaren gastuaren % 70 deskontatuko da, gehienez ere 200€ hilean, gela bat alokaturik edukiz gero; eta bi gela edo gehiago alokaturik edukiz gero, gehienez ere 400 €. Ezin izanen da deskontatu, inolaz ere, alokairuaren kostua baino zenbateko handiagorik.

Etxebizitzan familia bakarrik bizi den kasuetan, eta alokairuaren kontratuaren edo hipotekaren titularrak badira, alokairuaren edo hipotekaren hileroko kostuari % 70 aplikatu eta lortutako zenbatekoa deskontatuko da. Deskontatu beharreko zenbatekoa ez da inongo kasutan 400 €/hilean baino gehiago izanen. Etxebizitzako gela bat edo bat baino gehiago alokatuta dutenen kasuetan, kontzeptu horren bidez lortutako diru-sarrera alokairuaren edo hipotekaren kostutik deskontatuko da. Lortutako zenbatekoari aipatutako ehunekoa (% 70) aplikatuko zaio, dagokion kenkaria aplikatzeko.

5. Kasu bereziak: Kontuan hartuko dira, bestalde, apartekoak izateagatik tratamendu berezia eskatzen duten egoerak, baldin eta orokortzeko zailak badira eta gizarte eta osasun mailako larritasun-faktoreekin zerikusia badute eta behar bezala justifikatzen badira. Egoera horiek arrazoitu eta gizarte-txostenean jasoko dira.

6. Matrikularen kostuari dagokionez, familiak baremoaren arabera dagokion kostuaren % 10, % 30, % 60, edo % 75 ordainduko du, gutxienez, beti. Iruñeko Udalak gainontzeko ehunekoa ordainduko du, betiere programa honi heldu izanak eragin badu adingabea eskolan sartzea eta, horrenbestez, dirulaguntza jasotzeko eskaera egitea.

Familiak haurtzaindegiz aldatzea erabakitzen badu, matrikula berri osoa ordaindu beharko du.

7. Arta etxean jasotzeko laguntzen kasuan, arta zaintzaile partikular batek edo enpresa espezializatu batek emanez gero, aipatutako baremoaren arabera izanen dira laguntzak.

8. Familia-nukleo bereko bi anai-arrebak edo gehiagok dirulaguntza behar badute B.3.1.A) apartatuan (HAURTZAINDEGIAK ORDAINTZEKO LAGUNTZAK) jasotako kontzeptuarengatik, familia-nukleo horri dagokion errenta-tartearen aurreko tartearen laguntza-ehunekoa aplikatuko zaio.



BANAKAKO EBALUAZIOA

PRESTAZIOA BERTAN BEHERA UZTEKO ZIOAK:

Honako inguruabar hauek hartuko dira onuraduna izateko baldintzen ez-betetzetzat, eta horietakoren bat gertatuz gero, dirulaguntzak bertan behera geldituko dira automatikoki eta behar ez bezala jasotako dirulaguntza itzularazteko prozedura abiatuko da, bai eta, zehapen-prozedura ere, horretarako ziorik balitz:

- Atzemanak izatea aurretik ezkutuan gordetako diru-baliabideak.
- Udaleko Gizarte Zerbitzuetako profesionalei lana ez erraztea beren egoeraren jarraipenean eta laguntzan.
- Erreferentziako langileek eskatutako ziurtagiriak ez aurkeztea.
- Haurra justifikatu gabe behin eta berriz ez joatea izena emana/matrikula egina duen eskolara.
- Beste herri batera bizitzera joatea edo erroldan baja hartzea.
- Onuradunen egoera sozioekonomikoan funtsezko aldaketarik gertatzea, baldin eta horrek eragiten badu dirulaguntza hauen onuraduna izateko baldintzak ez direla betetzen.
- Dirulaguntza ematea ekarri zuten arrazoiak amaitzea.
- Eskariak ez betetzea deialdiaren B.1), B.3) edota D.1) apartatuetan adierazitako betebeharrak, eskatutako agiriak ez aurkezteagatik, zein deialdi honen B.4) apartatuan jasotako irizpideetara ez egokitzeagatik.

R. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☒ **I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.**

☒ **II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.**

☐ **III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.**

☒ **ERANSKIN OSAGARRIAK.**

IV. eranskina. GIZARTE-TXOSTENAREN PROPOSAMENA

V. eranskina. BERRIKUSPEN-TXOSTENA

V. Eranskina. Transferentzia bidez ordaintzeko eskabidea SAT

UDALEKO DIRU-PRESTAZIOAK ESKATZEKO ORRIA

Zerbitzua		Auzo-unitatea		Programa	
Erref. Gizarte Langilea				SIUSS zk.	
ESKATZAILEAREN DATU OROKORRAK					
1. abizena, 2. abizena, izena				Sexua	
NAN / AIZ / Pasaporte			Jaioteguna	Telefonia	
Familiaren helbidea				Posta-kodea	

☐	Zuzeneko diru-prestazioa	Itzultze-konpromisoa	☐	Zenbatekoa
				Eskatutako zenbatekoa
☐	Bizitokia	a.1 Etxebizitzaren ordainketa		0,00
		a.2 Etxebizitza berriaren kontratua		0,00
		a.3 Zorrak auzo-erkidegoari		0,00
☐	Hornidurak	b.1 Ura eta Zaborrak		0,00
		b.2 Elektrizitatea, gasa, berokuntza		0,00
		b.3 Altak hornidura-kontratuetan		0,00
☐	Elikadura eta/edo osasuna	c.1 Elikadura - Higienea		0,00
		c.2 Gaixotasun-gastuak		0,00
		c.3 Norberaren funtzionamendua		0,00
		c.4 Beste zenbait		0,00
☐	Prestakuntza eta laneratzea			0,00
☐	Haur-prebentzioa			0,00
☐	Bestelako oinarritzko beharrak			0,00
ZENBATEKOA, GUZTIRA:				0,0

☐	Transferitutako diru-prestazioa	Baimena ostatu batean aldi baterako egoteko
Establezimendua / Ostatua:		
Eskatutako zenbatekoa €/ egun		

☐	Diru-prestazioa 0 eta 12 urte bitarteko adingabeak dituzten familientzat, lana eta familia bateragarri egite aldera			
Eskatutako zerbitzua: ☐ B.3.1A ☐ B.3.1B ☐ B.3.2A ☐ B.3.2B				
Modalitatea:				
Eskatutako Zentroaren/Zerbitzuaren izena:				
Ordutegia:			Hasiera-data:	

☐	Eskabidea, alokairuetarako dirulaguntzei buruzko ETXEBIZITZAREN ALDEKO programan parte hartzeko
☐	Eskaera berria
☐	Eskaera berritzea

BIZIKIDETZAKO FAMILIA-UNITATEAREN OSAERA						
1. abizena, 2. abizena, izena	Jaioteguna	Eskatzailearekiko harremana	Adingabeen prestakuntza- eta ikasketa-maila	Jaioterria / Nazionalitatea		Onuraduna
						☐
						☐
						☐
						☐
						☐
						☐
Kide-kop. familia-unitatean				Adingabe-kop. familia-unitatean		
FAMILIA-UNITATEAREN HILEKO DIRU-SARRERAK						
DATUEN BABESA ETA BAIMENA						
DATUEN BABESA: Iruñeko Udala da arduradun botere publikoez baliatuz dirulaguntza kudeatzeko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira–, horiek ezabatzeko eta bestelako eskubideak gauzatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria www.pamplona.es/eu webguneko Pribatutasun Politikan kontsultatzen ahal dituzu. Halaber, eskaera aurkeztea baimen nahikoa da Iruñeko Udalak hala dirulaguntzak emate aldera beharrezkoak dituen egiaztapenak ofizioz egiteko nola deialdi honetako baldintza guztiak betetzen direla ziurtatzeko, hala badagokio.						
Eskatzaileak honako hau adierazten du: ► Konpromisoa hartzen dut eskatu zaizkidan agiriak aurkezteko eskatzen ditudan dirulaguntzetarako deialdian zehaztutako epean. ► Baimena ematen diot Iruñeko Udalari jakitera emateko entitate kolaboratzaileei hala onuradunen identifikazio-datuak nola dirulaguntzaren zenbatekoa edo ehunekoa (kasuaren arabera), laguntza hau modu egokian egiaztatu eta kudeatu ahal izateko. ► Halaber, baimena ematen diot Udalari dirulaguntzaren zenbatekoa ordaintzeko dagokion zentroaren kontu korrontean.						
Iruñean, -(e)(a)n			Jakitun - Sinatua (eskatzailea):			



II. ERANSKINA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Izen-abizenak:

Helbidea (jakinarazpenetarako):
.....

NAN: Telefonoa:.....

Faxa: Helbide elektronikoa:

Nire kabuz edo honako hau ordezkatzuz (dagokionaren arabera):
.....

Helbidea:

IFZ: Telefonoa:..... Faxa:

Jakinaren ganean nago "0 ETA 12 URTE BITARTEKO HAURRAK, EDO DESGAITASUNEN BAT BADUTE 16 URTE BITARTEKOAK, HAIEN KARGURA DITUZTEN FAMILIEI dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko 2023ko deialdia egin dela, BIZITZA PERTSONALA, LANA ETA FAMILIA BATERAGARRI EGITE ALDERA".

ADIERAZTEN DUT:

- Eskabidean jasotako datuak benetakoak dira, eta baditut hori egiaztatzen duten agiriak; halaber, men egiten diot aginte eskudunek egin dezaketen egiaztapenari.
- Bete egiten ditut onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak aipatzen dituen betekizun orokorrak eta deialdi honetan ezarritako berariazko betekizunak.
- Konpromisoa hartzen dut eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoa erabiliko dudala dirulaguntza emateko oinarritzat hartu diren helburuak eta jarduerak betetzeko.
- Xede bererako dirulaguntzen eskaerei dagokienez, honako hau adierazten dut (markatu dagokiona):
 - o Ez diet ezein dirulaguntza eskatu, deialdi honen xede bererako, nazioko edo nazioarteko beste administrazio publiko, erakunde publiko zein pribatu edo beste ezein partikularri –ezta haiengandik halakorik jaso ere–.
 - o Dirulaguntza hauek eskatu dizkiet, deialdi honen xede bererako, nazioko zein nazioarteko beste administrazio publiko, erakunde publiko zein pribatu edo beste edozein partikularri: ☐ (zehaztu data, entitatea eta zenbatekoa)
 - o Dirulaguntza hauek jaso ditut, deialdi honen xede bererako, nazioko zein nazioarteko administrazio publiko, erakunde publiko zein pribatu edota partikular hauen eskutik: ☐ (zehaztu data, entitatea eta zenbatekoa)
- Baimena ematen dut Iruñeko Udalak deialdiaren G.4 apartatuan adierazitakoa ofizioz egiaztatzeko.

Eta hala jasota gera dadin eta behar diren ondorioetarako, agiri hau egin, eta sinatzen dut,

Iruñean, 202__(e)koaren (e)(a)n
(Sinadura)

DATUEN BABESA: Iruñeko Udala da arduradun botere publikoez baliatuz dirulaguntza kudeatzeko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira–, horiek ezabatzeko eta bestelako eskubideak gauzatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria [www.pamplona.es/eu/webguneko Pribatutasun-politikan kontsulta ditzakezu](http://www.pamplona.es/eu/webguneko/Pribatutasun-politikan/kontsulta/ditzakezu).



Ayuntamiento de
Pamplona

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es/e

Iruñeko
Udala

ÁREA DE SERVICIOS SOCIALES, ACCIÓN
COMUNITARIA Y DEPORTE

Dirección de Servicios Sociales

GIZARTE ZERBITZUETAKO,
KOMUNITATE EKINTZAKO ETA
KIROLEKO ALORRA

Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza

GIZARTE-TXOSTENAREN PROPOSAMENA

Oinarrizko Laguntzako PROGRAMAREN DIRULAGUNTZAK

Izen-abizenak		SIUSS zk.:	
Zerbitzua		Auzo Unitatea	
Gizarte-langilea		Eskatutako zerbitzua	

DATU OROKORRAK

Familiaren helbidea		PK:	
Telefonoa		Telefonoa	

ELKARBIZITZAKO FAMILIA-UNITATEAREN OSAERA

Abizenak eta Izena	Jaioteguna	Eskatzailearekiko harremana	Espedientearen titularrarekin harremana	Jaioterria	Eskatzailea	
					BAI	EZ
					☐	☐
					☐	☐
					☐	☐

LAN-EGOERA ETA EGOERA EKONOMIKOA

(Ikasle ez diren 16 urtetik gorako bizikidetza-unitateko kideak)

Abizenak eta Izena		Prestakuntzako/laneko ordutegia:	
Ikasketa-maila	Okupazioa	RAE	
Laneko egoera eta historiala			
Abizenak eta Izena		Prestakuntza/laneko ordutegia:	
Ikasketa-maila	Okupazioa	RAE	
Laneko egoera eta historiala			

Hileko diru-sarrerak guztira:

Erreklamatu al du, edo abiarazi, konpentsazio- edo elikadura-pentsioetarako eskaera?

Izapidetzen ari da ☐

Bai ☐

Ez ☐



Ayuntamiento de
Pamplona

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es/e

Iruñeko
Udala

ÁREA DE SERVICIOS SOCIALES, ACCIÓN
COMUNITARIA Y DEPORTE

Dirección de Servicios Sociales

GIZARTE ZERBITZUETAKO,
KOMUNITATE EKINTZAKO ETA
KIROLEKO ALORRA

Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza

ETXEBIZITZA

Edukitze-erregimena

Hileko kostua:

Etxean oztopo arkitektonikoak egotea eta baldintzen deskribapena:

EGOERA IDENTIFIKATZEA

(Erabiltzaileak azaldua)

Planteatutako eskaera eta horren arrazoia

Zerbitzuaren ibilbidea

Noiztik ezagutzen da kasua

Zerbitzuaren maiztasuna / izaera

Unean unekoa

☐

Jarraipena, zerbitzuak proposatuta

☐

Interesatuak hala eskatuta

☐

Ibilbidean ezarritako zerbitzu aipagarriak (Udalarenak edo/eta kanpokoak)

FAMILIA-EGOERA

OSASUN-EGOERA

LAGUNTZA-SAREA

GIZARTE-DIAGNOSTIKOA



Ayuntamiento de
Pamplona

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es/e

Iruñeko
Udala

ÁREA DE SERVICIOS SOCIALES, ACCIÓN
COMUNITARIA Y DEPORTE

Dirección de Servicios Sociales

GIZARTE ZERBITZUETAKO,
KOMUNITATE EKINTZAKO ETA
KIROLEKO ALORRA

Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza

PRONOSTIKOA			
ESKU-HARTZEAREN XEDEAK			
Balorazioa eta pronostikoa			
Badago aldatzeko aukerarik:	BAI ☐	EZ ☐	
PRESTAZIOAREN IZAERA SUBSIDIARIOA (Bakarrik zuzeneko eta transferitutako diru-prestazioetarako)			
Dirulaguntza eskatzeko kontzeptuek Nafarroako Gobernuaren “Aparteko dirulaguntza” jasotzen ahal badute (alokairu-zorrak, etxebizitzaren sartzeko fidantzak, etxebizitzaren mantentze-lanak edo bizigarritasun-baldintzak, etab.), <u>aipatu dirulaguntza ez jasotzeko zioak</u> , tramitatzean aurkitutako zailtasun ekonomikoak... (Azaldu)			
LAGUNTZAREN KALKULUA HONETARAKO: (Hautatu dagokion aukera)			
—			
Familiaren hileko errenta Aparteko ordainsariak barne	Gastu kengarria, etxebizitza dela-eta Baldin badagokio	Diru-sarreraren tarte	Zenbatekoa edo diruz laguntzen ahal den % Udalak emana



Ayuntamiento de
Pamplona

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es/e

Iruñeko
Udala

ÁREA DE SERVICIOS SOCIALES, ACCIÓN
COMUNITARIA Y DEPORTE

Dirección de Servicios Sociales

GIZARTE ZERBITZUETAKO,
KOMUNITATE EKINTZAKO ETA
KIROLEKO ALORRA

Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza

			Eskatzailea/Familia %
			Udala: %
PROPOSAMEN TEKNIKOA			
Aldekoa ☐	Lan-baldintzak	☐ Lan-kontratuduna ☐ EBA	Berrikuspen-data (Hala dagokionean)
	Familia-baldintzak	☐ Zaintzailea ☐ Adingabekoaren arriskua ☐ Prebentzioa	
	Gizarte-baldintzak eta baldintza pertsonalak	☐ Osasun arloko ezberdintasunak ☐ Beste batzuk	
Aurkakoa	☐		
Sinatua:			
Gizarte-langilea: Auzo unitatea:			
Iruñean, 20.....(e)ko aren (e)(a)n			



BERRIKUSPEN-TXOSTENA

“0 ETA 12 URTE BITARTEKO HAURRAK, EDO DESGAITASUNEN BAT BADUTE 16 URTE BITARTEKOAK, HAIEN KARGURA DITUZTEN FAMILIENDAKO DIRULAGUNTZAK, BIZITZA PERTSONALA, LANA ETA FAMILIA BATERAGARRI EGITE ALDERA.

2023. urtea

Zerbitzua _____ Esp-zk. SIUSS _____
ESKATZAILEA:

Izena: _____ **Abizenak:** _____
Helbidea: _____

ADINGABE ONURADUNAK:

Abizenak	Izena	Adina

Egoera aldatu da bere garaian egindako eskaerari dagokionez:

() BAI -“X” batez adierazi-

a).-**Modalitate mota: B.3.1.A), B.3.1.B), B.3.2.A), B.3.2.B)** (Borobildu) **OHARRA: ESKAERA BERRIA ESKATZEN DU.**

b).- **Familiaren gizarte- eta familia-egoera. OHARRA: GIZARTE-TXOSTENA BEHAR DA ETA EGIAZTATZEN DUTEN AGIRIAK ERANTSI.**

c).- **Baja: Arrazoia:**

() EZ -“X” batez adierazi- OHARRA: LEHENGO BALDINTZA BERBERETAN EMATEN JARRAITUKO DA

Iruñean, 20.....(e)koaren (e)(a)n

Sin.: G.L.: